

Eusko Jaurlaritzak propaganda egin nahi du emakumeen soldata arrakalaren kontura

ELA EZ DA OTSAILAREN 21KO BILERARA JOANGO BAINA NEURRI ZEHATZAK PROPOSATZEN DITU LEGEBILTZARREAN ONARTU ZEN ADIERAZPEN HUTSALARI BENETAKO EDUKIA EMATEKO

Otsailaren 22an soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko eguna da. Oraindik orain, mundu osoan bezala Hego Euskal Herrian ere, gizon eta emakumeen arteko soldata arrakalaren datuak oso larriak dira.

EAE n emakumeek gizonezkoek baino 7.552 euro gutxiago irabazten dute urtean (%24,29), eta Nafarroan, 8.164 euro gutxiago (%28,41).

■ Zer dago soldata arrakalaren atzean?

1.- Sexuen arabera lanen banaketa eta bereizketa bertikala.

Lan ezberdinak eta enplegua sexuaren arabera banatzen dira.

Alde batetik, bizitzaren iraupenerako ezinbestekoak diren zaintza lanak emakumeek egiten dituzte

batez ere, eta lan horiei ez zaie inolako balio sozial eta ekonomikorik aitortzen.

Bestetik, enplegua ere sexuaren arabera banatzen da eta emakumeen enpleguei balio gutxiago ematen zaie, kasu askotan esparru pribatuan egiten diren zaintza lanen luzapen natural bat bezala ikusten direlako. Beraz, emakumeek egindako lan asko, balio parekoa edo handiagoa izan beharko luketen arren, gutxiago ordaintzen dira.

Soldata sistemak ere desberdintasun egoera honetan oinarritzen dira sarritan. Adibidez, gizonezkoen lotutako ahalmenak ordaintzen dituzten kategoriak edo plusak altuagoak izan ohi dira emakumeenak baino.

Kategoria edo organigramaren posturik gorenetan gizonezkoak dira nagusi enpresa gehienetan, bai esparru pribatuan, baita publikoan ere.

2.- Zaintza lanak eta enplegua uztartu beharrak emakumeak zigortzen ditu.

Emakumeak dira nagusiki seme-alaben edo mendekotasuna duten beste senideen zaintzaz arduratzen direnak. Amatasun baimenak, eszedentziak, lanaldi murrizketak... beraiek hartzen dituzte gehienetan.

Kontratu partzialak dituzten langile gehienak ere emakumeak dira, kontratu hauek enplegua eta etxeko eta zaintza lanak uztargarri egiteko tresna gisa erabili ohi direlako. Sistema bera da tresna honetaz baliatzen dena, emakume gehienentzat kon-

SOLDATA ARRAKALA EUSKAL HERRIAN

	GIZONAK	EMAKUMEAK	ALDEA	%
EAE	31.088,99	23.537,06	7.551,93	24,29
NAFARROA	28.727,37	20.563,08	8.164,29	28,41

tratu partzialak ez baitira borondatezko aukera izaten.

Honek guztiak eragin zuzena dauka: emakumeek soldata baxuagoak jasotzen dituzte, aldi batzuetan lan merkatu formaletik kanpo egotea edo lanaldi osoa ez egotea zigortu egiten baita.

3.- Emakumeen prekarietateak soldata arrakala sakontzen du.

Aurreko faktore guztien ondorioz, batik bat emakumeak dira prekarietatea jasaten dutenak (aldi baterako kontratuak, lanaldi partziala...). Zenbat eta prekarietate handiagoa jasan, soldata arrakala are sakonagoa da.

Azken urteetan egin diren lan erreformek, gainera, okertu egin dituzte langile guztien lan baldintzak, bereziki emakumeenak.

Soldata arrakala areagotzen duten prekarietatearen bi adibide garbi aipatu nahiko genituzke jarraian:

*Zerbitzuen pribatizazioa eta azpikontratazioa: balio berbera eta, ondorioz, soldata berdina izan beharko luketen lan asko pribatizatu edo azpikontratatu egiten dira. Sektore haue-tako askotan emakumeak dira nagusi (erresidentziak, garbikuntza, eskoletako jantokiak...). Kasu askotan, beraz, administrazioa bera da egoera hauen erantzule nagusia.

*Negoziazio kolektiboaren estatalizazioa: Estatu mailako hitzarmenek soldata baxuagoak jasotzen dituzte eta emakumeak nagusi diren sektore askotan aplikatzen ari dira (telemarketinga, saltoki handiak...). Hemen ere euskal administrazioen erantzukizuna azpimarratu beharra daukagu, sarritan lizitazioetako prezioak jaitsi eta hitzarmen estatalak ezartzea bultzatzen dutelako.

■ 1/2018 Legez besteko Proposamena, genero-berdintasunari eta lan merkatuari buruz

Azken aldian asko hitz egiten da soldata arrakalari buruz. Hau albiste ona da berez, beti ere eztabaidaren azalean geratzen ez bagara.

Haatik, hauxe da, hain zuzen ere, EAEko Legebiltzarrean gertatu dena. Otsailaren 1ean egindako osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarrak, aho batez, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak.

egindako legez besteko proposamena onestea erabaki zuen.

Legez besteko proposamenaren edukiak:

Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio:

- 1.- Hurrengo sei hilabeteetan 2018-2020 urteetan garatuko den ekintza plan bat egiteko.
- 2.- Gizarte-eragileekin soldata arraila gaitzetzeko eztabaida susta dezala.
- 3.- Soldata arrailaren inguruan Emakundek koordinatuta aldizkako txostenak egitea.
- 4.- Soldata arraileko kasuak salatzeko lan-iruzurraren aurkako buzoia erabiltzeko tresnak jartzea.
- 5.- Emakume eta enpresentzako sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak bultzatzea.
- 6.- Diputatuen Kongresuan soldata parekotasunaren aldeko lege bat onesteko eztabaida bizkortzeko eska dezala.

Akordio honetan oinarrituta, Lan eta Justizia sailak bilera proposamena luzatu dio ELA, LAB, CCOO, UGT eta Confebaski. Bilera otsailaren 21erako dago deituta Lan Harremanen Kontseiluan.

■ Edukiaren balorazioa

1.- Proposamen honek ez dio inola ere heltzen soldata arrakalaren oinarrian dauden egiturazko arazoiei. Kotsentsua bilatu nahi izan da arazoaren muinari heldu gabe. Ondorioz, hartutako konpromisoak ere hutsalak direla esan dezakegu. Ez dira inola ere nahikoa.

2.- Prekarietatearen arazoaz ez da aipamenik ere egiten. Eusko Jaurlaritzari ez zaio inolako konpromisorik eskatzen kalitatezko enpleguaren alde egin dezan. Ez zaio interpelaziorik egiten aplikatzen ari den politikak alda ditzan.

3.- Eragile sozialengan ardura jarri eta gobernuaren erantzukizuna lausotzen du. Ekintza planaren edukiak zehaztea elkarrizketa sozialeko eremu batera bideratzen dute. Lan Harremanen Kontseiluan deitutako bilera, hirutarikoa izanik, elkarrizketa sozialeko esparru bat da. Diseinu honekin, Confebaski aitortzen zaio soldata arrakalaren aurkako neurriei

muga jartzeko erabateko ahalmena, bera denean, hain zuzen, arrakala bultzatzen ari den eragile nagusienetakoa.

Gogoratu behar dugu azken urteetan egin diren lan erreformek langile guztien lan baldintzak okertu dituztela, eta bereziki emakumeenak. Gai hau ere ez da ageri proposamenean. Erreforma hauek patronalari eman dioten boterea ez da auzitan jartzen, gauza jakina izan arren emakumeak nagusi diren sektore askotako lan hitzarmenetako edukia murriztu nahi dituztela, lan baldintzak kaskartzuz.

4.- Azken urteetan gastu sozialean egin diren murrizketak ere ez dira salatzen. Gogoratu behar dugu fiskalitate injustu baten eta zorraren ordainketari ematen zaion lehentasunaren ondorioz, murrizketak jasan ditugula zaintzarako zerbitzu publikoetan ere, 0-3 heziketa zikloan esaterako.

5.- Badaukate nondik hasi. Eusko Jaurlaritzan bertan ere badago soldata arrakala. Administrazio Autonomoan, adibidez, ordainsari maila altuenak oso maskulinizatuta daude eta emakumeen behin-behinekotasuna gizonetzkoena baino handiagoa da. Osakidetzan kontziliazio neurri eraginkor guztiek lana uztea dakarte, ez baitago malgutasun neurririk. Irakaskuntzan ere emakumeak nagusi dira soldatarik baxuenak dituzten eremuetan (heziketa berezia, sukalde eta garbitasuna, haurreskolak...).

Era berean, errebisatuko al dituzte Euskal Administrazioek bultzatutako azpikontratak? Azpikontratazioak egiteko esleipen prozesuetan soldata duinak bermatuko al dituzte?

Ez daukagu baikor izateko arrazoi askorik, orain arte behintzat Eusko Jaurlaritzak ez baitu erakutsi borondate politiko nahikorik kalitatezko enpleguaren alde egiteko. Gogora ekarri behar dugu ELAko EAeko administrazioetako azpikontratetako langileen lan baldintzak hobetzeko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu zuela, eta Eusko Jaurlaritzako alderdiek zein Confedebaskek berak kontrako jarrera gogorra izan zutela.

6.- Lan iruzurrak eta soldata diskriminazioak salatzeke buzo bat iragarri dute. Emakume askok, ordea, ezin du salaketarik aurkeztu bizi duten prekarietateagatik. Salaketa hauek bultzatzeko kontzientzia kanpainak ere adar jotze hutsa iruditzen zaizkigu.

7.- Lan Ikuskaritzak kanpaina bat egingo omen du hurrengo hilabeteetan gai honen inguruan. Baina nola baloratuko du Lan Ikuskaritzak soldata arrakalarik dagoen ala ez? Auzitan jarriko al ditu soldata

arrakalaren atzean dauden prekarietate egoerak? Euskal Administrazioek bultzatutako azpikontratak ikuskatuko al dituzte? Berdintasun planak ez dituzten 250 langile baino gehiagoko enpresak zigortuko ote dituzte? Zer baliabidekin egingo dute lan hori? Hau guztia argitzeke dago.

■ **Ondorioz, otsailaren 21erako LHKan deitutako bilera propaganda ekitaldi hutsa iruditzen zaigu**

Legebiltzarreko proposamena aprobetxatu nahi da soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunaren bezperan argazki bat ateratzeko.

***Horren aurrean, ELA erabaki du bilera horretara ez joatea. Hau esanda, ELA prest dago gai honetan dituen proposamenak:**

***Eusko Jaurlaritzarekin partekatzeke, beti ere arazoaren dimentsioa behar bezala finkatzen bada.**

***Negoziazio kolektiboko mahaietara eraman eta soldata arrakalaren aurkako neurriak negoziatu eta zehazteko.**

■ **ELAren aldarrikapenak soldata arrailaren aurrean**

Gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasuna arazo politiko larria da. Oinarrian sistema kapitalista eta heteropatriarkalaren antolakuntza bera eta lanen banaketa injustua daude. Ezinbestekoa da, beraz, oinarrian dauden arazoei heltzeko urratsak ematea.

***Ondorengoak lirateke, besteak beste eta labur azalduta, hartu beharreko neurriak:**

1.- Etxeko eta zaintza lanen banaketa parekidea gizon eta emakumeen artean.

2.- Zaintza lanei dagokien balio sozial eta ekonomikoa aitortzea.

3.- Kalitatezko enpleguaren aldeko politika publikoak sustatzea, emakumeek jasaten dituzten prekarietate egoerei aurre egiteko.

4.- Administrazioek pribatizatutako zerbitzuetan edo bultzatutako azpikontratan soldata baxuagorik ez onartzea.

5.- Zaintzarako zerbitzu publiko doakoak eta unibertsalak garatzea.

6.- Aitatasun eta amatasun baimenak berdinak izatea, pertsonalak eta ezin direnak transferitu.

7.- 250 langiletik gorako enpresetan egiazko berdintasun planak exijitzea eta legea betetzen ez duten enpresak zigortzea.

8.- Kontziliazio neurriak ez izatea soldataren kontura edo karrera egiteko aukeraren kontura.

9. Soldata igoera handiagoak feminizaturako sektoreetan, balio berbera duten lanak berdin ordaindu daitezen.

Soldata arrakalaren aurka ere, emakumeen antolakuntza eta mobilizazioa dira bidea

Emakumeon antolakuntza eta borroka ezinbestekoak dira lan eta bizi baldintza duinen alde egin eta soldata arrakala gainditzeko.

Bidea egunero borrokan ari diren emakumeek erakusten digute. Bizkaiko erresidentzietako emakumeak eredu paregabea izan ziren.

Era berean, soldata arrakala beste arrazoi bat gehiago da martxoaren 8an emakumeok sistemari planto egiteko!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA